



OTSOAK ARTALDEAN

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (IV)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalOtsoak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

OTSOAK ARTALDEAN

(Bortz gertalditako antzerkia-1973)

Jokalariak:

ERRETORA: Zahar, edozoin.

BERHOUE: Bikarioa, edozoin.

PIARRE: Zahar, edozoin.

MARTINA: Zahar, edozoin.

BETIRI: 25 urte, eder.

GAXINA: 25 urte, edozoin.

ANA: 20 urte, fin.

GALDELARI: 30 urte, edozoin.

BARAT: 30 urte, larri.

ROBINOT: 30 urte, edozoin.

KURKUIL: 22 urte, koxkor.

ZIKITERO: 22 urte, larri.

MANEX: 22 urte, eder.

PINET: 40 urte, gaxto.

CAVAGNAC: 40 urte, gaxto.

TAULO: 45 urte, lodi.

OXANDABARATZ: 30 urte, faltsu.

AMA: 50 urte, zaintsu.

ZAKURRA: Ate zakur honen saingak ongi egin. Inportantzia baitute.



LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Errientaeneko sukaldea. Zerbait lanetan ari: Piarre eta Martina.

MARTINA: Eta gure mutiko hori ez ageri... Nun ote dabila?

PIARRE: Plazaraino doala erran du... Ikusi behar duela zertan den erreboluzioea.

MARTINA: Jaun erreтора, gure bordan gordea daukagu... Gure mutiko hori du meza emaitako beretter... Hori bera laguntako, gauaz ibiltzen delarik eri ikusten etxe batetik bertzerat...

PIARRE: Bai, irrisku beretzat, bainan eginbide.

MARTINA: Ez bakarrik beretzat irrisku, bainan guretzat ere.

PIARRE: Jainkoak, bide huntan sartu gaitu, fedea zerbitzatzeko.

MARTINA: Hortan zurekin arras ados nago. Bainan nik diodana da gure mutiko horrek, behar gabeko irriskuak hartzen dituela. Zergatik dabila hola, plaza hortan ostatuz ostatu?

PIARRE: Etsaien barrandatzeko. *(Ateko zakurra entzuten da saingatzan... Biak apur bat ixilik... Piarrek so egiten du leibotik)*

MARTINA: Nor da hor?

PIARRE: Bi «sans-culotte» armatuak!

MARTINA: Hunat heldu?

PIARRE: Ba... Ez ez... Etxe sahetseko bidea hartzen dute...

MARTINA: Segur naiz gure bordaren miatzzerat doazila...

PIARRE: Zoaz laster landarat mihise zabaltzerat... Erretora han dago segur, maiz-maiza hunat so... Mihisea zabaldua ikusiz geroz, berehala gordeko da. *(Martina ateratzen da. Piarre bakarrik dago kezkatua, sukaldeko lanak segituz eta leibotik behatuz...)*

BETIRI: *(Sartuz)* Egun on, aita!... Ama nun da?

PIARRE: Kanpo hortarat joana duk mihise hedatzerat... Bi gorri «sans-culotte» horietarik oraintxe berean iragan dituk hemendik.

BETIRI: Zerriak!... Ez ote doaz gure bordarat?

PIARRE: Zerbait ikasi duka?

BETIRI: Ba...

PIARRE: Zer?

BETIRI: Gure jaun bikarioa arrastatu dutela eta jaun erreторaren ondotik dabiltzala!

PIARRE: Jaun bikarioa arrastatu?

BETIRI: Ba... Latsian... Joan den gauean... Nonbaitik jakin dute nun zen bere gordegia... Gezurra erranik, gizon bat hiltzen ari zela eta apezga galdatzen zuela, jaun bikarioa bere gordele-kutik atera arazi dute... Eta gero, bidean, arrastatu...

PIARRE: Eta ostatu horietan, zer aro duk?

BETIRI: «Sans-culotte»-ak denetan nausi. Alderat edariz aseak eta harroki mintzo.

PIARRE: Beharrik ez zakitek lekuko berri!

BETIRI: Errazu orai artio ez zakitela... Bainan, orai bereganatu dituzte hemengo mutil batzu ere!

PIARRE: Nor?

BERHOUE: Bat, Zikiteroren semea... Bertzea Kurkuil guardaren seme sorjes hori... Bi Lukuztar ere horien gainerat.

PIARRE: Izigarri duk ba, lekuko haur bat hola bilakatzea: Herriko jenden salatari!... Holakoentzat nik axola guti nikek, tripatik puñala pasian-pas sar balezote...

BETIRI: Dirua da hor, aita, lanean ari!

PIARRE: Dirua ba... Eta ere ohore gosea... Jende herrestak hola dituk. Bertzek emanikako galonez ditek biltzen, beren balioaz bil ez dezaketen ohorea.

BETIRI: Bon, banoa, ama ikusiz, gure bordarat.

PIARRE: Goitirakoan eremaitzik pentzeko ardi horiek... Inkas ere, aitzaki bat izan dezakan bordari buruz joaiteko.

BETIRI: Ongi da, aita... Ber denboran, jateko puska bat ere hartuko dut jaun erreторarentzat, neretzat mendiko oturuntza balitz bezala, oihal batean bihurturik...

PIARRE: Har zak behar dena... Badakik nun dauzkagun gordeak gasna eta xingarrik... *(Betiri ateratzen da...)*

PIARRE: *(Bakarrik)* Ha Jainko ona... Ez dakit zuk zer pentsatzen duzun... Bainan gogoia nuke, nihaur ixil-ixila joanik, tripak egiteko salatari ustel horierik... Barkatu, Jauna, gaizki pentsatzen balin badut... *(Zakurra saingaz... Piarre kezkatua)*

MARTINA: *(Sartuz)* Zer du zakur horrek, berriz ere!

PIARRE: Ikusi duzu mutikoa?

MARTINA: Ba, denak erran daukit... Gaixo jaun bikarioa!



PIARRE: Iloba da hor heldu!

MARTINA: Iloba?... Zoin iloba?

PIARRE: Gaxina... Horren itxurak dionaz ez bide da berri onekin heldu.

MARTINA: (*Atea idekitzen dio*) ...Sar zaite sar, Gaxina!... Zer duzu arpegi hori?... Zer dituzu, berri txarrak?

GAXINA: (*Erortzen bezala da kadira baten gainerat eta, apur bat, ezin mintzatuz, nigarrez hipaka ari da... Noizbait mintzatzen da, hitzak nigarrek in aldizkatuz*) Ba, ttantta eta osaba!... Nere senarra, tirokatu dutela!

MARTINA: Josep tirokatu?

GAXINA: Ba, ttantta!...

MARTINA: Hil?

GAXINA: Ez omen... Bizi omen da... Kolpatua bakarrik.

MARTINA: Zer gertatu da ba!... Esplika zazu!

GAXINA: Joan den gauean, joana zen mugarat, hemendik Espainiarat ihesi zoazin gizon batzuen eramaiterat. Nonbait, mugatik hurbil, «sans-culotte» multzo bat zauden guardian... Salatuak izan bide dira. Tiroz, bi hilak izan dira: Bi baiones... Bat kolpatua eta preso altxatua: Manex Etxeberrikoa... Berteak salbatu dira. Heien artean da gure Josep, beso bat balaz trebesatua.

PIARRE: Salatuak!... Salatari zikinak.

MARTINA: Eta orai, pentsatua duzua zer egin!...

GAXINA: Nere eginbidea argi eta garbia da... Josepenganat joan! Hura zertan den ikusi, artatu. Eta geroako gero!

MARTINA: Etxerat etorri zaizkizu «sans-culotte»-ak edo ez oraino?

GAXINA: Oraino ez, bainan hor izanen ditut segur, luza gabe.

MARTINA: Hobe duzu gordetzea...

GAXINA: Ba, ez dut etxean gehiago sartu nahi ere... Auzoekin ez naiz haserre, bainan gaur nehork ez daki nori fida.

MARTINA: Nahi baduzu, heldu den gauean, gure mutiko horrek lagunduko zaitu mugarat.

GAXINA: Gogotik, berak nahi eta ahal badu.

MARTINA: Jes, lagundu behar ditugunetan, ez ote dira familiakoak lehen!

GAXINA: Mementoan, etxeakoak ari zaizkit, eraman beharko ditudanen preparatzen. Lehen joan-aldian joanen ditut beharrezkoenak eta gaineratekoak, ondoko egunetan.

MARTINA: Ongi da... Eta nun aurkituko zaitu gure Betirik?

GAXINA: Errozue jin dadien ttantta Roxaliren etxerat... Han nagola gorderik.

MARTINA: Ongi da Gaxina... Gure Jainkoak lagunt zaitzala!...

GAXINA: Bai eta zuek ere. (*Besarkatzen ditu ttantta-osabak*) Milesker, ttantta, milesker osaba.

MARTINA: Eta, Betiri, etorriko zaizu, erran lekurat gaur arratsa gabe.

GAXINA: Milesker hari ere aintzinetik... (*Ateratzen da*)

PIARRE: (*Ateratuz*) So bat ematerat noa mendiari, ikusteko gure mutiko hori nontsu den bere ardiekin! (*Ateratzen da*) Aintzurra hartzen dut «sans-culotte»-ak jiten balin badira, jakinen duzu sator ihizirat ateraia naizela...

MARTINA: Ongi da... (*Bakarrik*) Beharrik dugu fedea! Gaur gertatzen direnekin, ez baginu federik, zeri lot, nori sakrifika eta zertako!... (*Apur bat ixilik... Zakurrak saingatzan du adixkideki*) ...To, ezagun norbait hor!... Hori segur, gure zakurrak hola saingatzan duenaz geroz!

BETIRI: (*Sartuz*) Ez da nehor hemen?

MARTINA: Nor nahi duk hemen izaitea?... Ikusi duka aita?

BETIRI: Ba, hor da jaun erretoarekin! Ikuska jina naiz ean bazenetz nehor inguru huntan...

MARTINA: Jaun erretoa hemen!... Errotek sar ditela...

BETIRI: Aski duzue hiruek hemen deskantsuan solas egitea... Nik etxe ingurua zainduko dut. Zerbait lanjer gerta baledi, berehala abisatuko zaituztet.

MARTINA: Ongi duk. (*Betiri ateratzen da. Apur baten buruan sartzen dira jaun erretoa eta Piarre. Hunek, zaku bat dakar*) Ho, jaun erretoa, ez dakizu nola bihotza punpaka lotu zaitan, Betirik erran dautalarik hemen zinela.

ERRETORA: (*Irriz*) Punpa egin dezala, bainan ez marratik kanpo!

MARTINA: Zu beti arralleriako prest... Nago nola beti omere ona atxikitzen duzun...

ERRETORA: Nola ez?... Jana eta edana, jende urriarik emaiten dautate. Lo egiteko zilo bat xarmanta badut iratze meta baten azpian. Ene emaztearekin ez naiz sekulan samurtzen. Ez naiz nehoiz Jainkoarenganik hoin hurbil bizi izan. Zer behar duket gehiago?

MARTINA: Eta gure eliza gaixoa?



ERRETORA: Gure eliza izpirituala, nik uste, behin ere baino hobeki Jainkoarekin eta Jainkoarentzat bizi... Galernarekin, gure ardiak meta-metan, elgarri tink lotuak...

MARTINA: Ba, ba... Bainan ez naiz hortaz mintzo... Dakizun bezala gure herriko elizaz, zalditegi bat egina dute. Diru egiteko on ziren barneko puska guziak saldu dituzte.

ERRETORA: Salbu gorde ditugunak. Badakizu Etchegaray Orkazberroko nausiak, Sevillatik ekarri zituela eta gure elizari present egin gurutze bat, iduzki saindu bat, kalitza eta ziborio bat, denak balio handikoak.

MARTINA: Bai, eta nun dira orai horiek guziak!

ERRETORA: Hemen, zaku huntan.

MARTINA: (*Harritua*) He!

ERRETORA: Ba, jaun bikarioak, gordeak zauzkan eta nola bera preso sartu baitute, hunat ekarri ditut.

PIARRE: Utz nere gain horien gordetzea. Eta ez dadiela nehor jin neri horien kentzerat... Nere bizia, nahi badu, eramanen du, bainan horiek ez ditu eramanen.

ERRETORA: Ez, ez, Piarre... Zure biziak balio gehiago du puska horiek baino.

PIARRE: Puska horiek dira Jainkoari eskainiak eta sakratuak. Ez dira gure etxetik aterako, Jainkoaren etxerat joaitako baizik.

MARTINA: Eta jaun bikarioa zer bilakatu da?...

ERRETORA: Jakin dudana, bera eta Manex Etxeberrikoa joan dituzte Paueko presondegirat. Badakizu segur, Manex mugan arrastatu dutela.

MARTINA: Bai, bai, badakit. Gure iloba Josepekin zen.

ERRETORA: Ba, hortaz mintzatzekoa naiz zuen Betirikin... Nun da?

MARTINA: Hor da kanpoan etxezain.

ERRETORA: Ongi da... Beti bezala, maiz lekuz aldatuz biziko naiz. Norbait nere beharretan balin bada heldu den gauean edo bihar, doala Jakes eiherazainarenganat... Harek jakinen du nun naizen gordea.

MARTINA: Ongi da, jaun erretora.

ERRETORA: Eta, bertzerik gabe, berriz ikusi artio!

MARTINA: Agian laster, jaun erretora.

ERRETORA: Gure Jainkoak nahi bezala... Eta agur!

BIEK: Agur bai, jaun erretora! (*Apur bat ixilik*)

PIARRE: Eta orai, Martina, zu ere sekretu huntan partzuer baitzira, pentsa, nik bezanbat eginbide duzula, sekretu hunen begiratzeko.

MARTINA: Aski dituzu nik ez dakidan leku batean gordetzea... Hola, ez baitut jakinen, ez dut deus salatzen ahalko.

PIARRE: Ez... Hobe da jakin dezazun zer gerta ere... Gure ezkaratzeko gapirio horrek baitu zilo bat, taulaz tapatua, hor gordeko ditut. Taula harrotuko dut eta berriz itzatuko... Hor dago-tzila fedearen libertatea berriz gutaratu artio...

MARTINA: Kanporaino noa, mihise horien biltzerat. (*Ateratzen da. Piarrek mahain gainean, zakuatik gurutzea pixka bat agertzen du... Gape-lua kendurik, belaunikatzen da... Otoitz kartsu bat eginik, gurutzeari musu ematen dio... Gero, xutiturik emeki ateratzen da, gurutzea daramala bere zakuarekin, kartsuki, prosesionean bezala*)

OIHALA



BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Burdin grilla bat... Haren gibelean agertzen dira presonerak. Ikus-
liarren aldetik sartzen dira presoneren bisitariak... Hiru «sans-culotte»
dagozi guardian... Bat grillaren barnetik, bi kanpotik.

(Ana agertzen da otarre bat besoan)

GALDELARI: Nor haiz hi, citoyenne!

ANA: Ni naiz Ana Durruty.

GALDELARI: Ez dun erraiten «ni naiz», baina «ni nauk». Noiz ote, zuek,
euskaldun gibelatuak, ikasiko duzue gizon guziak girela
berdin? Gure errepublikan, nehork ez din «zu» erraiterik
nehoi. Baina deneri «to» eta «no». Nondik heldu haiz,
Ana!

ANA: Ni, heldu naiz...

GALDELARI: Heldu nauk!

ANA: Barkatu, ni heldu nauk Itsasutik.

GALDELARI: Itsasu, nik ez dinat ezagutzen... Leporaino aseak gaitun
zuen hizkuntza basa horrekin... Jakin zan, ez dela gehiago
Itsasurik. Errepublika etorri geroz, zuen herriak duela
izena: Union. Konprenitu duna ala ez...

ANA: Bai jauna, konprenitu dut!

GALDELARI: Hau pestekeria!... Erran ba «konprenitu diat».

ANA: Konprenitu diat, jauna!

GALDELARI: Eta «jauna»-rik ez sekulan gehiago aipa, baina horren
ordez erran behar dun «citoyen».

ANA: Bai, konprenitu diat, citoyen!

GALDELARI: Hola ba... Eta ez din balio gurekin «kasko gogor» ager-
tzea... Hemengo garañoak on ditun den astaña idorrena-
ren hezteko... *(Irri)* Ez dea hala, citoyen Robinot!

ROBINOT: *(Irri larri)* Ba, citoyen, ba... Eta hire zerbitzuko astaña horren
hezteko ere...

GALDELARI: Ez, hau utzak neretzat... Lana behar diagu zatikatu. *(Irri
larri bat)* Erran, hi, citoyenne Ana, zertarat etorri haiz
hunat!

ANA: Nere senargaia ikusterat!

GALDELARI: Hire senargaia! Ez hiza ahalge aipatzea ere, preso den man-
dil bat dunala senargaia!... Nola din izena hire citoyen
horrek?

ANA: Manex Etxeberri.

GALDELARI: Manex! Beharrik errepublika hemen baitugu behin betikotz
debekatzeko euskarazko izen basa horiek... Eta, zer dion
erraiteko hire senargaiari?...

ANA: Ikusi nahi nuke eta besarkatu.

GALDELARI: Zer uste dun presondegia dela musuka aritzeko leku bat!...
Zer ekartzen dun otarre hortan?

ANA: Senargaiarentzat beztitzekoa eta jatekoa.

GALDELARI: Hik, citoyen Robinot, mia zak otarre hori! *(Obeditzen du)* Eta
hik, citoyenne, ekarri dunan mutur bazka hori, hemen utzi-
ko dun. Hori partituko dinagu presoner guzien artean...
Errepublika ez din onartzen, batzu aberats eta bertzeak
pobre izaitea... Hemendik aintzinat, denak berdin? Izan
burges ala eskale, nausi ala zerbitzari, gizon ala emazte...

ROBINOT: Jatekoak kendu ziozkaiat, citoyen... Beztitzeko puskak ere
behar ziozkaiat kendu ala ez?

GALDELARI: Ken denak... Bihar dik Manexek jujamendua... Eta, horren
ondotik, ez dik aldatzeko pusken beharrik izaneren. Behin
betikotz aldatuko baitugu. *(Irri)* Ana hasten da nigarrez

ROBINOT: Errak, citoyen, nahi duka neska tzar hau biluz dezadan, gor-
putza ere miatzeko?

GALDELARI: Ez, aski duk hola!

ROBINOT: Domaia! *(Irri)*

GALDELARI: *(Barne aldeko guardari)* Hik, citoyen Barat, sar araz-zak hunat
delako Manex... Datorla bere urrizaren ikusterat. *(Apu-
r baten buruan agertzen da Manex, bi eskuak bizkar gibelean este-
katuak, itxura arras trixte batekin... Bi gazteak, apur batez,
bitzik erran gabe, nigarrez ari dira)*

ANA: Nola zira!

MANEX: Ez da hemen gosea, miseria eta zampaketa bertzerik!



BARAT: (*Orroaz*) Citoyen Manex, erretira-zkik solas horiek edo berehala, puñala hau lepotik sartzen daiat... Aitor-zak gezurra erran dukala!

MANEX: Ba, gezurra erran diat!

BARAT: Aitor-zak errepublikak ongi tratatzen dituela bere presonerak eta denak berdin.

MANEX: Aitortzen diat!

BARAT: Eta oroit hadi nola den hemengo erreglamendua. Debekatua duk hemen mintzatzea politikaz, presondegi barneko harat-hunatez eta ere auziari doakotenez.

MANEX: Nola eta nun dira gure etxeokak!...

ANA: Denak etxean, Manex, eta denak ongi, Jainkoari esker!

MANEX: Nik, bihar dut jujamendua.

ANA: Zer iduritzen zaizu gertatuko dela?

MANEX: Ez izan deusen esperantzarik, Ana... Gure amodioa huntan bururatuko da... Gau bat eta egun bat oraino gure amets ederrak betikotz trenkatuko dira.

ANA: Ez duta fitsik egiten ahal zure alde?

MANEX: Otoitz bakarrik, Ana... Oraidanik barkamendu galdatzen dautzut eta barkamendu galdatzen diotet inguruko guzieri, egin dituzkedan pena eta kalte guzientzat.

ANA: Nik ez dut fits barkatzekorik.

MANEX: Jaun bikarioa gurekin dugu hemen eta gain-gainetik arima pre-paratua dugu garbi agertzeko gure Jainkoaren aintzinean.

ANA: Hau gure zortea!

MANEX: Ez egin nigarrik, Ana... Zure bizia moldatuko duzu, zure alde-tik, bertze norbaitekin... Pentsatzen dut zerurat joatea... Handik lagunduko zaitut. Gorputz-amodioa ez da iraunkorra... Izpiritu-amodioak du bakarrik iraupena. Izpiritu amodioz betikotz josia gelditzen naiz zurekin.

ANA: Nigar egiten dut, baina bozkariotan nago ikusiz zure fedearen fer-mutasuna. Apur batentzat gira elgarrenganik berexten. Ez zaitut sekulan ahantziko. Berex giren denboran, gure amodioa ariko da suhartzen. Suhartasun hori, egun batez gozatu-tuko dugu bere fruitu guziekin.

BARAT: Bon, tenorea da elgarrenganik urruntzeko. Burura-zkitzue zuen solas tetele horiek! Ale, fuera hemendik, citoyenne...

ANA: Kuraie on, Manex... Behin ere baino gehiago, gaur eta bihar, otoitz eginen dut zuretzat.

BARAT: (*Manex joaiten duela*) Haugi hunat... Akerra barnerat, eta ahuntza doala kanporat...

MANEX: Ez adiorik, Ana... Ana, maite zaitut... Ana, beti maitatuko zaitut. (*Hitz horiek erran ditzala subarki*)

ANA: Nik ere bai, Manex...

ROBINOT: (*Ana, kanporat botatuz*) Ah, fuera hemendik, fuera, urriza... (*Apur bat ixilik*)

BARAT: (*Agertuz eta irriz*) Errak, hi, citoyen, entzun dituka horiek elgarri bota dituzten astokeriak? Ez nian sekulan asmatuko ere, senar-emaztegai batzu hola mintza zitezkeela elgarrekin. Hik, citoyen, behin ere erabili duka holako solasik hire emaztegaiarekin?

GALDELARI: Nik behin ere... Baina, horiek entzun-eta, gogoetatua nia-gok...

BARAT: Zer ba!...

GALDELARI: Eta sekulan, horiek balute arrazoin!... Horien bidea balitz egiazkoa eta gurea gezurrezkoa!

BARAT: Baduka burutik hola mintzatzeko!... Hi, errepublikanoa! Hi, citoyen, hola mintzo!

GALDELARI: Dena duk ean lur ziloan suntsitzen den gure bizia... Hori, hola balin bada, guk diagu arrazoin... Baina, hiltzea balin baduk bakarrik biziz aldatzea, Jainko baten auzitegitik pasatu ondoan, orduan gu izanen gaituk asto eta horiek izanen ditek arrazoin...

BARAT: To, to, ez nian sekulan usteko holako buru hausterik izan ziteke-la hire baitan... Utz-aitzik hire huskeriak bazterrerat, citoyen, eta goazen bide argitik... Hor heldu zaik bertze urri-za bat.

MARTINA: (*Sartuz*) Agur jaunak!

GALDELARI: Eta beti gauza bera... Ez dun hemen, ez «jaunik» eta ez «andererik»... Errepublikan, denak gaitun «citoyen» eta «citoyenne»... Eta mintza hadi ez zuka baina toka edo noka. Nungotarra haiz hi?

MARTINA: Ni nauk, citoyen, Itsasuarra... Barkatu, bazakiat Itsasuk izen berria duela «Union», baina ez zakiat oraino nola erraiten den «Itsasuarra», zuen hizkuntza berrian. Nola deitzen gaituzue «unionarrak», «uniontarrak» edo zer?

GALDELARI: Ez guri aipa «arrak», «tarrak» eta holako hitz-buztanik... Errepublikak lurperatuko ditin horiek laster, azken euskal-



dunekin. Gure errepublikak nahi din izan frantses hizkuntza bakarrekoa... Errepublikak «bat» eta denentzat «berdin».

MARTINA: Ongi duk, citoyen, bainan ez duk eman nere galdeari erreputarik. Nola erran behar den frantsesez «Itsasuarra»...!

GALDELARI: Bakea eman neril... Erran nahi dunan bezala, bainan ez euskaraz! Horiek hola, noren ikusterat heldu haiz?

MARTINA: Ni nauk Gaxina Heguy-ren ttantta... Nere iloba duk, berrikitan mugan arrastatu duzuen emazte gazte bat.

GALDELARI: Ba, bazakinat nor den zerrama hori... Senarra Josep, kolpaturik, ihesi joana din Errazurat, Español zikin kokotero hoietarat.

MARTINA: Dena den iloba hori nahi nitek ikusi eta berari nahi niozkek eman, otarre huntan ditudan puska batzu.

GALDELARI: Citoyen Robinot, so egizak zer den otarre hortan.

ROBINOT: (*Otarrea hustuz*) Gasna, arroltze egosiak, ogia, xingarra. (*Gero, trufaz bezala, emazten barneko jauntzi batzu erakusten ditu. Azkenik arrosario bat ateratzen du eta irriz*) Ardi kakak, elgarri lotuak!... Zertarako ditun hauk, citoyenne, jateko ala lepoan erabiltzeko?

MARTINA: Ardi kaka horiek hor ezarriak nitian, zikiro zonbait tentatuko zutelakoan.

GALDELARI: Ez dakina zuen herriko elizan ez dela gehiago Ama Birjinarik, bainan haren orde ezarria dugula «la déesse raison».

MARTINA: Zuek neska galdu erdibiluz bat ohoratzen... Guk aldiz ama garbi eder bat... Bakotxak bere gustu, citoyen!

GALDELARI: Errepublikak erakutsiko dautzue hiri eta hire idurikoeri zer den egiazko libertatea... Libertatea sekulan ez ahanzteko, han daukazue landatua, eliza aintzinean, «l'arbre de la liberté».

MARTINA: Libertatea zer den ez ahanzteko, ez diagu zuen arbola horien beharrik!

GALDELARI: Zer behar duzue ba!

MARTINA: Libertatea zer den ez ahanzteko, aski eta sobera ditiagu zuen presondegiak eta gillotinak.

GALDELARI: Bon, aski huntarik... Beraz, hire iloba nahi dun ikusi!

MARTINA: Ba, citoyen.

GALDELARI: Citoyen Barat, jin bedi hunen iloba. (*Apur baten buruan, estekatua agertzen da Gaxina*)

GAXINA: Ho, ttantta, zu hemen!

MARTINA: Ba, haurra, hemen naiz, zuri erraiterat jina, denak ongi girela... Zure senarra ere ba. Ahal guzien egiten ari gira zu salbatzeko.

GAXINA: Milesker ttantta eta milesker deneri. Bainan ez dut uste bizirik aterako naizen ifernu huntarik. Bihar dut jujamendua eta badakit ni gillotinatzekeo xedetan direla.

MARTINA: Zu gillotinatu?... Ez ahal dute holako basakeriarik eginen.

GAXINA: Ha, ez dituzu ezagutzen errepublikano jauntto horiek!

GALDELARI: (*Orroaz*) Ixilik! Errepublikanoak errespetat gaitzazue!

GAXINA: (*Bortizki*) Ez, ez naiz ixilik egonen! Ttantta, errepika-zazu deneri eta leku guzietan, hobe dela hil, presondegirat sartu baino... Ikaragarriak pasatzen direla barne huntan!

GALDELARI: (*Orroaz*) Citoyen Barat, eremak urriza ustel hori begien bixtatik eta zafra... (*Baratek basaki joaiten duela Gaxina*) Eta hi, citoyenne ttantta edo kaka zaharra, leku hauk huts-aitzin berehala. Eta hanbat gaxto hiretzat, hitzik aipatzen badun hemen gertatuez!

MARTINA: Eta ekarri ditudan puska hauk, zer!...

GALDELARI: Utzi horiek hemen... Hire ilobarentzat on ez badira, bertzeentzat on izanen ditun... Eta fuera hemendik. (*Martina ateratzen da ixilik, gurutze seinalea eginez*)

BARAT: (*Berriz agertuz*) Utzi diat hezlearen eskutan.

GALDELARI: Satanen zerri urrizak... Hamar gizonen kontra nahiago diat partida, holako bi urrizen kontra baino... (*Apur bat ixilik*)

ROBINOT: Citoyen, gizon bitzi bat baduk atean... Erraiten dik hemen daukagun apez baten aita dela.

GALDELARI: Zoin apez?

ROBINOT: Berhouet, Itsasu edo Unioneke bikarioaren aita.

GALDELARI: Sar araz-zak!

ERRETORA: (*Sartzen da, dena buila, makil bat bizkarrean eta bari estekatua oibal bat, puskez bete*) Biba errepublika! Biba Frantzia gorria! Ez Jainkorik eta ez erregerik!

GALDELARI: Nor haiz hi, to, citoyen!

ERRETORA: Ni nauk aita trixte bat! Denek deitzen naitek «Gorri»... Beti izan nauk errepublikaren alde eta apezzen kontra. Eta horra nun nere seme bakarra, apez egin zitzaidan. Hemen daukazue preso. Eta orai jina nauk, seme sorjes horri zernahi



erraiterat burutik behera. Nun duzue jauntto hori... Agert dadiela berehala nere aintzinerat!

GALDELARI: Citoyen Barat, sar araz-zak Berhouet apezal!

ERRETORA: (*Bakarrrik*) ...Oilo arroltzea xitan ezarri eta handik sugea ateral!... Oi nere biziko desohorea!

BARAT: Huna Berhouet apezal!

ERRETORA: (*Samur gorri*) Hor hiza seme! Ni naizela hire aita pentsatuz, ileak buruan xutik jartzen zaiztak. Urtzen, urtzen ari nauk hiregatik. Desohoragarria hil!... Aita ukatzailea!

BERHOUET: Aita, aski pairatzen dut hartu dudana bidea harturik... Ez nezazula otoi gehiago sofriaraz... Ekaitzu nere etxeko berriak!

ERRETORA: Jakin dudalarik preso altxatua hintzela, nihaur izan nuk berehala gure errepublikano garbitasuna egiterat, hire etxerat. Handik kendu ditiat gurutze, kopa tzar eta saindukeria guziak. Holakorik nehork ez zezala ikus eta ez atzeman errepublikano baten semearen etxean... Denak urerat aur-tiki ditiat... Ha, bihotza oraino pil-pil diat, hi hemen ikus-teak emaiten dautan haserrearekin. Arno trago bat egin behar diat, to. (*Edaten du xabakotik*) Eta ez zakala ametsik egin, huntarik ukanen dukala ttuntta bat ere... Zuek ba, citoyens, zuek edazue. (*Ematen diote guardianoeri. Haneke eda-ten dute*) Eman hadi belauniko hor... Eta barkamendu galda-zok aitari. (*Abapetik*) Emaiten dautzut atsolutzio-ne...

BERHOUET: (*Bildutasunekin*) Ba, aita, barkamendu eskatzen dautzut eta eskatzen diot Jainkoari ere... Nere faltaz, nere faltaz, nere falta handiaz.

ERRETORA: (*Haserre balitz bezala, eskua barat eta hunat erabiliz, egiten dio gurutzareen seinalea, atsolutziona marmarikatur*) Xuti hadi hor-tik herresta! Gizon bat bertze baten aintzinean belauniko, nork ikusi du holakorik?

BERHOUET: Zuhaurek erran dautazu, aita, belaunikatzeko.

ERRETORA: Eta nik manatzen badeiat, penitentzia gisa, egun guziz, bortz minutaz hola-hola belauniko egoteko eginen duka?

BERHOUET: Zergatik ez, aita!

ERRETORA: Egizak beraz!... Ho, ho, errepublikano baten semea hortara daitekela! Holako seme baten aita naizela pentsatzean, lotsa jiten zait lepo-zintzurreraino... Bon, jan eta edan dezagun

gure penen ahanzteko... (*Bere oibaletik ateratzen ditu ogia eta gasna. Bera zerbitzaturik, pasatzen diozkate guardianoeri*) Orizue, citoyens, jan-zazue, zuek ere, ahamen bat... Te, te, zakur-rra... To, hik ere ondar bat... (*Aborat ematen dio ogia, abape-tik erranez*) Corpus Christi... Jesusen gorputza... Bat eta baterez... Horra gure familia. Ni «bat» eta nere ondokoa «deus ez». Ho, ho, ho!... Gizon bat, nere seme bat huntara daitekela! (*Barati*) Citoyen, gizon hori joan-zak hemendik... Ez diat gehiago ikusi nahi ere, begien bixtan... (*Hasten da sudur zintzaka*) Bon, horra nun nigarra heldu zautan neri ere!... Nolaz ez, hoinbertze penekin!... (*Nigarrez*) Banoa hemendik... Ez dezaket nere burua gehiago jasan leku huntan. (*Ateratzen da, denek agurtzen dutela*)

GALDELARI: Hau gizon bitzial! Ez duk harritzeko, holako aitaren semea pixka bat errebesa izaitea!

BARAT: Ni apez horrek naik harritu eta desgustatu... Aita, aita duk... Bainen hola herrestaka, aitaren aintzinean, zakur joa baino apalago bilakatua!

GALDELARI: Zer nahi duk! Orotarik behar mundu bat egiteko!

OIHALA



HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Auzitegi bat: Mahain bat eta jarleku zonbait. Hor dira bortz «sans-culotte» (aintzineko hiruak eta bertze bi)... Hor ere bi zibil, xapel luze batzuekin. Hauen bien izenak: Pinet eta Cavagnac.

PINET: Etorri gira hunat, ni, auzitegiko president bezala... Nerekin, citoyen Cavagnac, preso direnen akusatzailea. Gaur jujatu behar ditugu presondegi huntan diren Itsasu edo Unione-ko etsaiak. Zonbat dira?

GALDELARI: President Pinet, lau dituk hemen Unione-koak. Hiru gizon eta emazte bat.

PINET: Nor dituk?

GALDELARI: Bat: Berhouet apeza, Unione-ko bikarioa. Bertzea: Manex Etxeberri, mutil gazte bat, mugan arrastatua, Espainiarat ihesi zoalarik lagun batzuekin. Hirugarrena: Gaxina Heguy, emazte gazte bat. Hau ere, mugan arrastatua, Espainiarat zoalarik, bere senarraren ikusterat. Laugarrena berriz: Domingo Garat. Huni Taulo erraten ziotek. Hau, gaur goizean ekarri ditek jandarmek.

CAVAGNAC: Ba, badakit nor den: Unione-ko ostaler bat, azpiz gure etsaie-ri jatekoa fornitzen duena.

PINET: Eta orai, jakin behar duzuen, hauxe duk: Lau horiek behar ditugula garrazki gaztigatu... Haatik ez denak hil... Bat bederen salbatu. Jende-ek ez dezatela erran justiziarik ez dela. Hola desberdin gaztigatuz, erakusten dugu justizia ongi egiten dugula, bakotxari bere hobeenaren gaztigua emanez.

CAVAGNAC: Bai Union herria itsuski muntatua duk gure kontra. Denen sustatzaile ditek Haranbillet erretora. Apez zahar bat duk, azeria bezain abila. Gorde leku batetik bertzerat, orai artio eskapatu zaikuk... Bainan, eroriko duk noizbait ihizia gure zeporat.

PINET: Horko gazte hainitz, berrogeita hamar bat hurbil, ihesi joanak dituk Espainiarat... Hortakotz deliberatu diagu horko

jende multzo bat arrastatzea. Gauza bera egiten diagu Azkainen, Saran eta Ainhoan. Presoner horiek guziak igorriko ditiagu Landesetarat. Han hetsiko alandrez pinudi batean... Eta denek leher egin dezatela.

CAVAGNAC: Hola, itsasuar eta gainerateko guzietan, gure beldurra sartuko ziotegu hezur muinetaraino.

PINET: Eta orai, mintza gaiten, apur baten buruan, hemen berean ideki behar dugun auziaz. Beraz hiru behar ditugu hiltzerat kondenatu eta bat salbatu. Gure ohidura da, gogorrenak eta kalte gehienik egin dezaketenak, gillotinan pasatzea. Bizirik uztea aldiz: Gurienak eta beldurtienak.

CAVAGNAC: Gaur berean, baititugu bertze holako hiru auzi egitekoak, ez dezagun denborarik gal. Ikus dezagun, nor behar dugun hil. Gure argitzeko, gurekin ekarri ditut bi «sans-culotte», biak Itsasuko haurrak. Citoyen Pinet emanen dugu auzitegiko president. Horren eskuin eta ezkerrean jar ditela bi Itsasuar «sans-culotte»-ak. Eta auzi hau ez baita zibilena, bainan gerlarien artekoa, trenka dezagun laster eta gogor.

PINET: Has gaiten berehala: Zoin da zuen ustez, lauutarik hil gabe utzi behar duguna?

GALDELARI: Nere ustez, bizirik utzi behar duguna da Berhouet apeza. Guk, hemengo guardianok badakigu ongi presoneren berri, horienganik hurbil bizi baigira. Apez hori ez da gizon eñul, ttula bat baizik. Horra nere ikusbidea. Mintza daitezela nere lagunak.

PINET: Nor da hemen, citoyen hunek erran duenaren alde? Altxa eria! (*Kondatzén ditu*) Bat, bi, hiru, lau, bortz, nerekin sei... Eta hi, Cavagnac, alde haiz ala kontra?...

CAVAGNAC: Nik, gogo onez, lauak gillotina nezazkek...

PINET: Nor da ados Cavagnac-en nahikundearekin?... (*Cavagnac-ek bakarrik altxatzén du eria*) Ikusten dukan bezala, citoyen, bakarrik haiz gu seien kontra. Beraz gure eginbeharra argi eta garbi ageri duk... Apeza salba eta bertze hiruak hiltzerat kondena.

CAVAGNAC: Lot gaiten berehala lanari... Hik, citoyen Barat, ekaitzik hunat lau biligarro horiek... Zuek hiruak jar zaitezte jujarien alxian... (*Lau presonerak, estekatuak, sartzen dira*)

BARAT: Zuek lauak, jar zaitezte alki hortan...



PINET: Citoyens, auzitegi huntako president bezala, eskatzen dut errepublikaren justizia pasa dadiela gogor, zintzo eta garbi... Berterik gabe, auzia idekia da... Citoyen Cavnagac, hire entzuteko prest gaituk.

CAVAGNAC: (*Mintza dadiela beti mespresuki eta harroki*) Domingo Garat, jende deitzen haute Tauro... Nere eskutan ditudan paper hauek, citoyen Tauro, hire zerrikerien kondairez beteak dituk... Aspaldi duk begitan hintugula eta hurbildik barrandatzen. Azkenean ba, erori haiz gure aztaparretarat. Hemengo jendea miserian. Hainitz familietan, talo bat ere ez mahainean emaiteko... Bainan Tauloren mahainean, ogi xuria egun guziz. Nondik? Galda eiherezainari.

TAULO: Gezurra!

CAVAGNAC: Hemen ditiat, citoyen Tauro, nere eskuko paper huntan, eiherezainaren beraren aitormenak... Hainitz etxetan, ez dute haragia mahainean ikusten, hilabetea behin edo bietan baizik. Bainan, Tauro baitan, egun guziz haragi saltsak eta errakiak... Nondik? Galda herriko kabala zikitatzaileari. Nork dakike horrek baino hobeki herriko kabalen berri?... Bere seme ohoragarria hemen dugu jujari, presidentaren eskuinean.

TAULO: Zikiteroren semea jujari. Noiz ikasi huen sinatzen, to!

PINET: (*Haserre*) Ez diat, citoyen Tauro, onetsiko nehirenganik, are gutiago hireganik, holako solasik, nere juje lagunaren kontra!... Aintzinat, citoyen Cavnagac!

CAVAGNAC: Ogi xuria, haragia, edaria ausarki, norentzat, citoyen Tauro eta noren ahotik kendurik?... Jende behartsuari kendurik, jende dirudunentzat, eta gainerat, errepublikaren etsai amorratuentzat... Tauloren ostata, gure etsaien biltoki... Tauloren ostatuan, etsaiak, ase eta zurrutean, gure kontra plana gaxtoen egiten... Tauloren osatatuan, etsaiek armak gordetzen.

TAULO: Gezurra!

CAVAGNAC: Gezurra?... Jakin-zak, citoyen Tauro, ez dudala sekulan fitsik erraiten, frogaz ez dezakedanik... Eta egia diodala, huna izkirioz ezarria lekukotasuna. Eta lekukotasun horren emaita, nor ote? Bai, nor ote, citoyen Tauro?

TAULO: Gezurti bat ederra?

CAVAGNAC: (*Oihuz*) Hire emaztea, citoyen Tauro... Bai hire emaztea!... Sinatzen dakiena eta sinatu duena... Beraz norbait dena, hire arabera sinatzen jakin behar denaz geroz, norbait izaiteko.

TAULO: (*Etsitua*) Gezurra, gezurra, gezurra!

CAVAGNAC: (*Irri txar batekin*) Ez zait iduritzen, citoyen president balio duenik hemen aipatzea zergatik emazte horrek hola salatu duen bere senarra: Haur bat, oraino sortu gabea, zen sobe-ra Tauloren ostatuan... Ostatu hortako sehiaren haurra!

TAULO: Gezurti ustela!... (*Erdi nigarrez*) Eta, fitsik ezin egin!

CAVAGNAC: Horra, citoyen president, biluzirik agerian ezarria Tauro jaunttoa: Errepublikaren etsaia, gure hiltzalen laguntzaile eta armatzalea, jende behartsuen bizkar aberastua, heien errekaratzailea, berak sortu miseriaz baliatzailea. Holako krimek merezi duten gatzigu bakarra da: Gillotinaren pikadera.

PINET: Bego jujamendua gure gain, citoyen, eta orai okupa gaiten Manex Etxeberriz.

CAVAGNAC: «Manex Etxeberrikoa, etxe oneko semea, puxka bat eskolatua, herriko neskalari oilarra, bere buruaz hartua»... Horra zer dion nere paperak citoyen hunentzat... Zer uste duk Manex, ez ginakiela nor zen pareta tintatzen gure kontra ari zena! Nor zen gure kontra pertsu txar batzuen hedatzailea! Ez ginakiela nork zuen, gau batez, moztu guk landatu libertatearen arbola!... Nork su eman, plaza kaskoan zen gure errepublikako banderari! Ari izan gaituk alegia ez ikusi, bainan...

MANEX: Ez dik balio, citoyen, hire mintzatzeko talendua higatzea, gu harritu edo ikaratu beharrez... Aski badiagu hire teatrotik...

PINET: (*Haserre*) Zer!... Zer dira solas harroputz horiek! Oroit hadi, horiengatik, lepoa galtzen ahal dukala!

MANEX: Hago ixilik hi ere, komedienta!... Bazakiagu denek hemen, gu hiltzeko deliberoa aintzinetik hartua duzuela. Emak sententzia eta... bakea guri...

PINET: (*Haserre*) Citoyen Cavnagac, utzak bere gisa gizon horren auzia. Ez berak hala nahi duelakotz, bainan nik manatzen hautalakotz. Lepoa galdu nahi badu, gal dezala!



MANEX: Bai, nere lepoa galduko diat, bainan arrudak eginen dik itzulua, eta egun batez, hik, hik eta hik eta zuek denek, ni bezala, berdin duzue galduko zuen lepoa.

PINET: *(Orroaz)* Ixilik... Eta hi, citoyen Cavagnac, ikus dezagun zertaz akusatua den emazte hori!

CAVAGNAC: Citoyenne Gaxina Heguy... Bere senarra dik mugaz bertzalderat ihesi joana. Mugan gaindi askotan ibilia duk, gizon eta paper pasan. Azkenean, gaur hemen juje dugun hunen aitak, Kurkuil guardak, arrastatu dik eta guri ekarri. Hemendik, mugaz bertzalderat lagundu dituen gizonetarik zonbait, gure «sans-culotte»-en hiltzailetarik zitukan...

PINET: Beraz kriminelekin uztartua.

CAVAGNAC: Bai, citoyen president. Hunek luken arrazoin bakarra, ez hiltzerat kondenatua izaiteko, hauxe duk: Haur beharretan dela.

PINET: Norenganik?

CAVAGNAC: Berak ote zakik?

GAXINA: Hire amak, citoyen Cavagnac, ez... Ez zakiken hi norenganik hintzen.

PINET: Haur aitaduna edo aitarik gabea, errepublikak berdin errespetatzen dituenaz geroz, axola guti dugu haur hori izan dadien hire senarraren ala bertze edonorrenganik... Huntan burura dadiela emazte hunen auzia... Eta orai, citoyen Berhouet apezaren aldi! Zer egin dik apez horrek?... Mintza hadi, citoyen Cavagnac.

CAVAGNAC: Gure errepublikak nahi du betikotz populua libratu erlijio-nearen sineskeria xoroetarik... Hortakotz jabetu da elizez eta elizaren ontasun guziez. Apezeri galdatu diote zin egitea leial agertuko direla errepublikari buruz. Bai, bainan, euskaldun apez gehienek, ezetza eman daukute, bereziki Itsasuko Harambillet erretorak eta Berhouet bikarioak. Gure debeku guziengatik, bi apez horiek gorde dira eta lotu ixilka mezen eta sakramenduen emaiten... Erretora ez dugu oraino harrapatu.

PINET: Aitortzen duk, citoyen Berhouet, desobeditu dukala errepublikari?

BERHOUE: Bai, citoyen president, errepublikari baino nahiago izan diat obeditu nere kontzientziari eta Jainkoari.

PINET: Badakik, citoyen Berhouet, nola errepublikak gaztigatzen dituen hi bezalako gaxtaginak.

BERHOUE: Errepublika gaztigatzen eta Jainkoak saristatzen.

PINET: Gaztigua segura, saria mentura.

BERHOUE: Nola jujatuko, hala jujatua izanen zira.

CAVAGNAC: Apez hunen joko sorjesak, citoyen president, segur gillotina merezi dik. Halere aitortu behar diat ez duela nehor hil edo ebatsi. Ez dela ere nehoren bizkar aberastu. Bertzalde, bere aita omen duk errepublikano zintzo bat... Bertze zerbait ere banikek erraiteko, citoyen president, apez hunen alde. Bainan, niagok ez ote dudan hobe ixilik egoitea.

PINET: Mintza hadi, citoyen Cavagnac. Auzi bat xoko guzien argitzeko egina duk, nehun itzalik utzi gabe.

CAVAGNAC: Huna beraz... Badakik, citoyen president, nola presundegi guzietan izaiten diren presuner batzu, azpiz pagatuak, beren preso lagunen barrandatzeko eta salatze... Gertatu duk, Berhouet apezak onartua zuela ofizio hori... Apezek bazakitek kofesatzen, bere preso lagunak kofesatu ditik eta oro guri salatu... Horri esker ditiat jakin auzi huntako paperetan ditudan asko xehetasun.

BERHOUE: *(Orroaz)* Gezurra!... Zikinkeria!... Ustelkeria!...

CAVAGNAC: *(Irri mehar batekin)* Irriz niagok ikusiz zer begitarte egiten duten apez «saindu» horren inguruko lagunak.

MANEX: *(Fermuki)* Jaun bikarioa, ez egin kasurik bazter zikintzale usteldura horri! Zure baitan dugu konfiantzarik osoena. *(Denek gauza bera diote)*

PINET: Bon, denenak eta denetarik entzunik, ohi den bezala, hiru jujeak apur batentzat aterako gira, gure sententziaren emaiteko. *(Ateratzen dira hiru jujeak eta Cavagnac)*

MANEX: Neretzat ez da dudarik heriotzeko oreina hurbil dugula. Proposatzen dut bide handiari lotu aintzin, elgarrekin otoitz egin dezagun... *(Denek onartzen dute...)* Jaun bikarioa, lagun gaitzazu, otoi.

BERHOUE: Nahi baduzue, gure zeruko amari eta kantuz, galdatuko dugu bere laguntza. *(Zintzoki, murmurikan bezala hauta dezatela. Denek errepika eta jaun bikarioak kopla... Hastapenean, «sans-culotte»-ek, elgar kontsultatzen bezala dute begiz eta jesus, ean onetsi behar duten ala ez hautatze hori... Bainan, bakean uzten ditzate)*

LAUEK: Ama maite Maria
Egiguzu lagun



Zure bitartez Jesus
Ikusi dezagun.
Egizu ama ona
Azken egunean
Oren lazgarri hura
Hurbiltzen denean
Izan dezagun orok
Jesus bihotzean
Zuekin har gaitzazu
Zeruko lorian.

*(Lauek berriñ kopla... Hura bururatzean, sartzen dira biru jujeak eta
Cavagnac... Denak ixilik dagotxi)*

PINET: Auzi huntan jujatuak izan diren lau hobenduneri, huna, errepublikaren izenean, ematen diotegun gaztigua: Citoyen Domingo Garat, Taulo deitua... errepublika egin dadiela bere ontasun guzien jabe eta berari, berehala, lepoa motz diezotela. Citoyen Manex Etxeberri... errepublika egin dadiela bere ontasun guzien jabe eta berari, berehala, lepoa motz diezotela. Citoyenne Gaxina Heguy... Errepublika egin dadiela bere ontasun guzien jabe eta berari lepoa motz diezotela... Ez haatik berehala, bainan haurra ukan-eta gero... Errepublikak alabainan, ez du nahi, ama hobendunarengatik, haur hobengabea gaztigatua izan dadien. Citoyen Jean Berhouet apeza... Errepublika egin dadiela bere ontasun guzien jabe... Bizi guzikotz izan dadiela desjabetua, citoyen batek dituen eskubide guziez... Hilabete batez preso atxikia izan dadiela... Eta gero, betikotz leku hauk huts ditzala.

BERHOUE: *(Bortizki)* Protesta egiten dut... Nere lagun hauek eta ni, berdin hobengabe, edo nahi balin baduzu, berdin hobendun gira... Galdatzen dut beraz, neretzat ere, gaztigu berdina!

PINET: *(Irri txar batekin)* Barkatuko duk, citoyen Berhouet, hiri egin fago-rea. Bertzaldi batez xuxenduko diagu gaur egin makurra... Orai eman dugun sententzia jakin araziko da euskaldun guzieri, bai kridariaren eta bai murru paperen bidez... Bertzerik gabe, zuek soldadoak, berehala joan-atzue kondenatu hauek: Bi presondegirat eta bi gillotinarat. *(Soldadoak, zuekar agertzen dira... Kondenatuak aldiñ arras ezti. Berhouetek*

basten du «Zerua saritzat» kantua... Kondenatuak ateratzzen dira, kantu hori, abapetik bezala, kantatuz)

PINET: *(Irri txar batekin)* Zuentzat hango parabisua. Guretzat nahiago diagu hemengoa!

OIHALA



LAUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Errientaeneko sukaldea. Betiri bakarrik, zerbait ari. Zakurra entzuten da erauntsiaka, norbait adixkideri bezala. Betiri doa atea idekitzerat.

BETIRI: Agur, jaun bikarioa, agur! (*Sartzen da Berhouet*)

BERHOUE: Agur, Betiri!

BETIRI: Zer berri, jaun bikarioa?

BERHOUE: Berri txarrak, Betiri... Gure jaun erretora preso baitzaukaten Baionan, orai joan dute Pauerat... Segur han jujatzeko.

BETIRI: Gillotinarako on da beraz!

BERHOUE: Nik uste... Orai apez bakarra gelditzen naiz herrian.

BETIRI: Zonbat aldakuntza hiru urte hautan... Zure hiru preso lagunak, gillotinuak. Zu bizirik, baina ahal bezala, eskuin eta ezker gordeka.

BERHOUE: Ba, eta zuen etxean ere... Aita eta ama, hilak... Zu bakarrik... Dudarik gabe, beti ezkontzekotan zira Anarekin?

BETIRI: Ba, eta lehenbailehen... Aspertua bainaiz hemen bakarrik bizitzeaz.

BERHOUE: Nahi balin baduzue egun hauetan ezkondu, balia zaitezte... Nere gordegia etxe gaineko gisu labe zahar hortan dut, herriko lurretan. Hor ezkonduko zaituztet nahi duzuelarik.

BETIRI: Ongi da... Anaren so nago. Nik uste, apur baten buruan hemen izanen da... Berarekin elgar adituko dugu.

BERHOUE: Eta, Oxandabartz errientak, bakea ematen dio, ala beti ondotik dabilkio?

BETIRI: Beti ondotik: Zernahi egiten dio berarekin ezkont dadien eta ez nerekin.

BERHOUE: Bizkitartean, Oxandabartz, zure adixkide mina da, edo bederen adixkide mina zen?

BETIRI: Eta nola! Hiltzean, nere aitak zin egin arazi da, bakea berriz jitean, gure elizari itzuliko diozkadala gordeak dauzkagun horko pusak. Beldur bainintzen, berdin bakea jin aintzin hila izanen nintzela, paper sekretu bat egin dugu Etxeberri

notarioarekin... Paper horren sinatzale gira notarioa, ni eta Oxandabartz. Hiruek bakarrik dakigu puska horien berri... Ikus hortarik noraino zoan gure adixkidantzal!

BERHOUE: Agian ez zaitu salatuko!

BETIRI: Azkena liteke hortaratzea. (*Zakurra entzuten da adixkideki saingaz*)

BERHOUE: Norbait hor!... Banoa gibleko atetik.

BETIRI: (*Leibotik behatuz*) Ez, jaun bikarioa, zaudel!... Ana da hor... Arras tenore onean heldu da... (*Atea idekitz*) Sar zaite, sar, Ana... So egin nor dugu hemen!

ANA: (*Agertuz*) Ho, jaun bikarioa!...

BETIRI: Ba, jaun bikarioa gorderik dago hemendik hurbil eta, guk nahi dugularik, ezkonduko gaitu...

BERHOUE: Haatik, nik ez dakit zonbat egunez egoiten ahalko naizen hemen. Beharbada egun bat, eta beharbada zortzi.

ANA: Ni prest nago, nahi balin bagaituzu ezkondu gaur berean.

BETIRI: Ni ere bai!

BERHOUE: Bon, zoin tenorez?... Nahi duzuia ezkondu gaur ilunabarrean?

BIEK: Ba, berdin.

BERHOUE: Ongi da... Aski duzue etortzea bi lekukorekin. Betirik badauki nun den nere gordelekua... Banoa berehala.

ANA: Ez, jaun bikarioa, zaudel apur bat hemen. Zerbait erraiteko badut... On da, zuk ere, jakin dezazun.

BERHOUE: Zu!

ANA: Huna zer gertatzen den. Oxandabartz errienta, beti nere ondotik dabila... Nitaz itsutua... Baitezpada nerekin ezkondu nahi luke. Baina sekulan ez dut aurkitu atzo bezanbat gaxto-tua... Ikaragarriak bota dauzkit.

BERHOUE: Zer erran dautzu?

ANA: Betirirekin ezkontzen balin banaiz, laster alargun geldituko naizela. Berak, Etxeberri notarioa lekuko, bazakiela sekretu bat. Hitz erdi bat behar den lekuan salatzea aski lukela, Betiri sekulakotz galtzeko... Sekretu hori zer daiteken, ez daut salatu.

BETIRI: Zerri zikina! Jakin dezala ni galtzen banau, bera ere nik galduko dudala!

ANA: Ba, eta zu ere, aipatu zaitu, jaun bikarioa.

BERHOUE: Ni?... Zer zuen nitaz erraiteko?



ANA: Badakiela zu zirela bitarteko, gure ezkontza huntan. Zu ez zirela apez arnegatu bat baizik... Zure bizia salbatzeko, zuk dituzula salatu zure presuner lagunak.

BERHOUE: Betiko ustelkeria! Fama hori dute hedatu errepublikanoek, Euskal-Herri guzian, krida eta paperen bidez... Zer egin, gezur horri hegalak mozteko?...

ANA: Fitsik ez! Ixilik egon eta Jainkoari eskaini!

BETIRI: Ez zaitela hortaz kexa, jaun bikarioa!... Gure artekoetan nehork ez du hortaz hitz erdi bat sinesten eta aipatzen ere! Zer du hola aritzeko errient ustel horrek?

BERHOUE: Xo, xo!... Ez gaizkika ar nehorretaz!

BETIRI: Ni beldur naiz ez ote duen horrek jadanik zango bat gure etsaien tartean sartua... Zango bat eta berdin burua eta gorputz guzia ere...

BERHOUE: Dena den, gaur ilunabarrean, Jainkoak nahi badu, ezkonduak izanen zirezte. Eta, pentsatzen dut, ikusiz bere esperantza suntsitua, errientak bertze alapidetik hartuko duela.

BETIRI: Batere gizona balin bada, hala egin behar luke segur... Geroak erranen.

BERHOUE: Ni banoa... (*Zakurra lotzen da gaxtoki erauntsiaka*)

BETIRI: (*Leibotik so egiten du*) «Sans-culotte» bat hunat heldu!... Mugi, jaun bikarioa, zoaz ihesi gibealeko atetik! (*Berhouet tirabala jaltzen da... Apur baten buruan*)

GALDELARI: (*Agertuz*) Agur jaun andereak! Ez izi... Ez naiz etsai bezala heldu bainan zueri zerbitzu egiterat... Zuk, jauna, badauzkazu nonbait gordeak elizako puska batzu!

BETIRI: Elizako puska!... Zer da ixtorio hori?

GALDELARI: Norbaitek salakuntza bat egin du gure buruzagieri, zuk, etxe huntan gorderik daukazula elizako puska batzu.

BETIRI: Jakiten ahal dute nor den salatari hori?

GALDELARI: Nihaurek ere ez dakit... Bainan apur baten buruan, gure soldadoak hemen izanen dituzu... Ordrea dute zure etxe guzia errotik miazteko... Orain zuhaurek ikus ean deus gorderiketik baduzun, haiek hunat sartu aintzin.

BETIRI: Jiten ahal dira nahi dutelarik. Ez da hemen deus gorderik edo gorderiketik.

GALDELARI: Hobe... Ni banoa... Ez otoi nehoi sala ni hunat etorri naizenik. Urrats hau egin dut zuen estimuz, eta ere, ez naizelakotz gehiago ados gure alderdikoek hartzen dituzten

zombait jokabidekin... Beraz, ez nauzue ikusi... Eta... agur!... (*Ateratzzen da*)

BIEK: Agur ba agur!

BETIRI: Zer saltsatzen ote du ustel horrek! Gatu horrek baduke bertze buztanik!

ANA: Eta egia baliro!

BETIRI: Edo gezur ziria sakatu dauku eta arrantzan dabila gutarik zer atera... Edo, burtxoro kolpe bat ukan du.

ANA: Daiteke ere dolutua dela orain artio egin duenaz eta bertze bide bati nahi duela lotu, bihar zer etor dakioken pentsatuz.

BETIRI: Dena den, argi gelditzen dena da norbaitek salatu nauela. Bi gizon ziren bakarrik nere sekretua zakitenak: Notaria eta errienta.

ANA: Ha... Beraz delako sekretua ez da sustrai gabeko airekeria bat.

BETIRI: ...Zuretzat hala izan dadiela!

ANA: (*Irrin bategin*) Milesker, jauna!

BETIRI: Ez... Ez zazula otoi gaizki har nik errana...

ANA: Zuk errana ala zuk ez errana?

BETIRI: Nere kitzikan ari zira, bainan ni ez naiz batere irrigura. (*Zakurra saingatzzen du hortizki... Betirik so egiten du leibotik...*) «Sans-culotte»-ak, Ana!... Zoaz fite ihesi gibealeko atetik!... Zoaz gain hortako gisu labe zaharrerat... Hor da gordea jaun bikarioa! (*Ana ateratzzen da. Apur baten buruan, sekulako buila ateratzzen dutela, atea banbakoan ideki, sartzen dira lau «Sans-culotte»: Barat, Robinot, Kurkuil eta Zikitero*)

BARAT: Citoyen Iharour Pierre, hi hiza?

BETIRI: Ba, ni naiz.

BARAT: Esteka zazue gizon hori kadira bati. (*Betiri, kadiraren jarritik, estekatzzen dute esku muturretatik, kadiraren bizkarrari*) Bon, citoyen, orain errak nun gordeak ditukan elizako kalitza, gurutze eta gainerateko puska! (*Mintza dadiela errabiarekin, orroaz, gero eta gehiago baserretuz, azkenean arras astotua*)

BETIRI: Ez dakit zertaz mintzo ziren!

BARAT: (*Laguneri*) Zuek, mia zoko guziak! (*Apur baten buruan*) Bazakiat ganbara batean ditukala... Zoin ganberatan?

BETIRI: Nik ez daukat fits gorderik.

BARAT: (*Iletik tiratuz*) ...Mintzatuko hiza!

BETIRI: Nik ez dakit fitsik!



BARAT: *(Ostikoz jotzen du eta zafalakatzzen)* Mintzatuko hiza!... Bai ala ez! *(Bettiri ixilik dago)* Jakin-zak hi edo zakur bat neretzat berdin direla. *(Pixtola muntatzen du, klik-klik arrabotsarekin)* Hiru artino kondatuko diat eta ez baduk lehenago aitor-tzen, hiru erraitearekin garbitzen haut. *(Kondatzen du emeki, armaz jestu beldurgarri batzu eginez)* Bat... bi... Azken aldi-kotz... Mintza hadi edo garbitzen haut... Hi!! Hiruren erdia errana diat... Hi... Hi!!... *(Betiri espainez, otoitzean ari dela dirudi. Zakurra entzuten da, kezu)*

BARAT: Ez... Ez haut lasterregi hil nahi... Ha, ez duk aitortu nahi!! Jakin-zak ez dela mundu huntan sortu, neri aitortuko ez dautan gizonik! *(Hiru laguneri mintzo)* Zuek hiruek, har-azue gizon hau! Esteka zazue kanpoko arbola horietarik bati. Emozue zonbait ote mulko zangotan. Erre-ozkitzue zangoak... Hori ez bada aski, erre trunkoa ere... Hori ez bada aski, erre burua... Erre denak... *(Hiruek obeditzen dute... Zakurra lotzen da erauntsiaka. Apur baten buruan, suak argitzen du leihoa)* Zakur hori ixilaraz-azu. *(Zafatua, marruma batzuen ondotik, ixiltzen da. Bainan, noizean bebin, beriotze sainga batzu botatzen ditu, nausia torturatzen ari dutelarik. Barat, bakarrik, eskuin eta ezker dabila, ero bat bezala mintzatur)* Errepublikak duk: Liberté, Egalité, Fraternité... Horien kontra den guzia, behar dik suntsitu... Baratzeko belar tzarrak bezala. Suntsitu! Suz, armaz, pozoinaz!... Ahal den bezala!... Suntsitu! *(Leibotik behatur)* Hi, Robinot, su hori, apur batentzat itzal-zak... Bertze biak, zatozte hunat! *(Sartzen dira Kurkuil eta Zikitero)* Zuek biek, har-azue zaku bat eta bete-azue, barne huntan aurkituko dituzuen jan-edateko guziez... *(Ateratzen da... Barneko biak lotzen dira beren lanari, zakuuan sartzen dituztela ogia, gasna, xingar, lukainka, edari eta holako... Kurkuilek arrapatzen du keza ttipi bat...)*

KURKUIL: Errak, haugi hunat... So egizak zer den keza huntan... *(Ager-tzen dituela)* Muntra bat, petentak, bi erraztun, lepoko zilarrak... Bon... Hauek guretzat... Erdia hik eta bertze erdia nik... Eta, nehork ez dezala fitsik jakin. *(Egiten dute partimena... Anartean, kanpotik entzun daitezke, oihu, intzirin eta zakur erauntsi batzu)*

BARAT: *(Sartuz)* Prest zireztea?

KURKUIL: Ba, citoyen...

BARAT: Ez dik fitsik aitortu nahi... Atera zaitezte eta ekar-azue gizon hori airetan barnerat. *(Ateratzen dira. Betiri, zangoak erreak, ekartzen dute eta jartzen kadiru gainea)* Oraikotz, bizirik uzten haugu, citoyen Iharour, bainan laster berriz jinen gaituk hire berrien jakiterat... Anartean, egizkik hire gogoetak... *(Laguneri)* Zuek... Goazen... *(Zakua barturik, lauak jaltzen dira... Betiri intzirik... Zakurra berio saingaz)*

ANA: *(Agertuz gibealeko atetik, jaun bikarioarekin)* Zer da!! Zer gertatzen da hemen! Ikusi ditugu joaiten eta tirahala heldu gira.

BETIRI: Joka erabili naute eta zangoak erre dauzkitet... Nahi zuten nere sekretua jakin, bainan ez diotet tuntik salatu. Ekazu otoi, Ana, trapu bat, urean bustirik, zerbait minaren eztitzeko. *(Anak nigarrez, zangoak bustitzen diozka)*

BERHOUE: Ez duzuia urin gatz gaberik?

BETIRI: Ba, hortxe atzemanen duzu armarioan.

ANA: Urin gatz gabea da hoberena erreduren eztitzeko. *(Biek artatzen dutela)*

BETIRI: Oxandabarat, salatari ustela! *(Intzirik)*

BERHOUE: Eta orai, zertan gelditzen da zuen ezkontza?

BETIRI: Ni ez naiz gehiago atzoko hura... Gaur, naiz zauritua eta behar-bada geldituko naiz, bizi guzikotz, enbalier. Ez dut uste gomeni den Anak har dezan senartzat, laguntza baino kargu gehiago emanen dion gizona.

ANA: *(Bizji-bizja)* Baduzuia burutik, Betiri, hola mintzatzeko! Neretzat, jada, nere senarra zira. Ez da senarra ukatzen, makurbide bat gertatu zaiolakoan... Are gutiago, makurbide hori due-larik ohorezko ekintza baten ondorio. Jada zurea naiz eta zuretzat nahi dut izan betikotz, gaur arratsean, hitzartu bezala, zurekin ezkonduz...

BETIRI: *(Hunkitua, begiak xukatuz)* Milesker, Ana. Agian ukanen duzu niganik, merezi duzun zoriona! Zure solasek nere minaren erdia jada kendu dautate.

BERHOUE: Bon, hola denaz geroz, sarri, eta hemen berean, ezkonduko zaituztet... Aski dituzu, Ana, bi lekuko hunat deitzea.

BERHOUE: Eta pixka bat hobekitzean, nere lehen egitekoa izanen da errieta salatari zikin horri, burua arrailtzea.

BERHOUE: Holakorik ez, Betiri!

BETIRI: Zer!... Zer ba!



BERHOUET: Batetik ez dakizu segurtamen osoarekin nor daiteken zure salataria. Bertzetik, guk, girixtinoek, ez dugu mendekatu behar.

BETIRI: Bainan, jaun bikarioa, ez da hori mendekioa! Hori da zuzenle-gea... bakotxak berak egin behar duena, ez delarik legezko auzitegirik horren egiteko!

BERHOUET: Bai, bai, zuzen mintzo zira... Bainan ikus ere, zer ondorio-ak jin daitezken zure mendekiotik... Zer herrak eta segur, odol ixurtzeak ere!... Nik uste, hobe ditugula iturri tzar horiek oraidanik moztea... Zuk zer diozu hortaz, Ana?

ANA: Bide gogorra dela, zuk proposatzen daukuzuna, bainan Jesusek ere barkatu ziotela bere burregoeri.

BERHOUET: Nere iduriko, nehoi ez ginuke aipatu behar errientak egin duena edo egin duena... Gauden hortaz beti ixilik... Xede hori har-azue nerekin batean... Ez dukezue ezkon-tzerako preparazione hoberik.

BETIRI: Otoi, jaun bikarioa, utz ezadazu nere gogoeten egiteko astia. Ez dautzut ezetz erraiten... Bainan nere zauriak berriegi dira, barkamenaz lañotzeko.

OIHALA

BORTZGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Aintzineko bera pixka bat alegeratua... Ana, arropa ederrez beztitua, ari da, mahain baten gainean apailatzen, delako elizako puska gor-deak... Betiri, hau ere arropa ederrez jauntzia, ari zaio laguntzen.

BETIRI: Ha, gure aita zena bizi izan balitz! Hoinbertze aldiz erran izan daut: «Noizbait su-pizketa hau bururatuko duk. Bakea berriz jinen duk. Orduan, elizako puska kontsakratu hauk, elizari itzuliko diozkak»

ANA: Bai, bainan, zure aita zenak ez du behin ere amestu, pusken itzultze hau eginen zela prosesion handiz, herri guzia bildurik.

BETIRI: Prosesion huntan, ez nintuzken nik eraman behar puska hauk, bainan gure aita zenak. Harek salbatu baitzituen.

ANA: Harek salbatu bai, bainan, ez ote duzu zuk ere, harek bezanbat parte edo gehiago, salbatze hortan!

BETIRI: Egia erran, bai zuk ere gu bezanbat, ez baitakit zu gabe, egun latz haietan, zer bilakatuko nintzen. *(Atea jotzen dute)*

ANA: Norbait atean!... Aintzinat! *(Agertzen da erretoa, arras zabartua, makil baten laguntzarekin duela kurrutzen)* Jesus! Gure jaun erreto-ra... *(Biek besarkatzen dute)* Nondik agertzen zira, jaun erre-to-ra?

ERRETORA: Paueko ospitaletik heldu nauzue xuxen-xuxena. Badakizue edo ez, hiltzerat kondenatu nindutela... Gobernua aldatu da, ni gillotinatua behar ninduten bezperan. Horrek salbatu nau... Berehala sartu naute ospitalerat... Bainan handik ihes egin dut, ez bainuen nihundik huts egin nahi, gaur, zuen ohoretan, muntatua den besta handi hau!

ANA: Nola zira osagarritz, jaun erretoa!

ERRETORA: Ikusten duzuen bezala, gorputza bi plegu eta hiru zangoren gainean.

ANA: Jar zaitte, jaun erretoa!...

ERRETORA: Ez... Berehala joan behar dut elizarat, apez arropen jaunz-terat, gero berriz hunat etortzeko prosesionean.



ANA: Eta zer diozu Pariseko gobernu berriaz?

ERRETORA: Gaurkotz, orai artinoko lepo motzailerik jazartzen da. Pauen eta Tarbesen, egun guziz, karro osoak baderamazte gillotinatat, hoinbertze jende hil duten papo gorri hoietarik.

BETIRI: Horiek, ba merezi dutela!... Kriminel basak!

ERRETORA: Badakizue, dudarik gabe, bospasei Itsasuar gorri ere, gillotinatu dituztela. Bai eta ere, Pinet, Cavagnac eta hemen gaindi jende hiltzen ari izan diren bertze batzue!

BETIRI: Eta, pentsatzen dut lepoa moztu diotela ere Kurkuil eta Zikiteroril!...

ERRETORA: Zikitero ba gillotinatu dute... Kurkuil, egun hautan, jujatze-koa zuten... Bainan, ez duke horrek ere eskaporik.

BETIRI: Ez da goizegi zikinkeria hoietarik garbitzen baitute gure eskualdea...

ERRETORA: Zikitero eta bertze hemengotar batzue ere, gillotinatat joan dira atorra gorritan, apezaren laguntza errefusatu.

BETIRI: Nola bizi eta hala hil.

ERRETORA: Bizkitartean, nerekin katiximan ibiliak ziren...

BETIRI: Ba... Judas ere Jesusekin.

ERRETORA: Hilak hil dira... Orai, bizi girenen artean, izanen dugu lan antolatzen. Hainbertze nahaskeriek, bertze hainbertze herra sortu baitute gure artean.

ANA: Horixe bera gogoan nindagon, jaun erretora... Gaur, Itsasuar hainitzentzat besta dela, bainan ez denentzat!

BERHOUE: (*Sartuz*) Ha, jaun erretora, zure ondok nindabilan... Elizan oro prest dira eta zu eskas...

ERRETORA: Ba, jaun bikario maitea, banoa berehala. (*Irrinõ batekin*) Orai bikarioak, erretora manutzen. Ezagun du errepublika pasa dela hemen gaindi... Bon, apur bat artio. (*Ateratzen da*)

DENEK: Ba, agur ba, jaun erretora.

BERHOUE: Bon... Huna nola eginen dugun prosesioa... Herri guzia bilduko da zuen etxe aintzinerat. Hemendik joanen gira prosesioez elizarat. Zu, Betiri, emanen zira prosesioaren buru, zurekin joaiten dituzula zuhaurek salbatu puska... Puska horiek ezarriko ditugu aldare gainean, denek ikus ditzaten. Zuhaur jarriko zira koroan... Han, Elizaren izenean, eginen daukizugu zor dituzun ohoreak. Ondotik, sakramendu sainduaren benedizioa.

BETIRI: Egia erraiten dautzut, jaun bikarioa, nahiago nukela, hola ibili baino, gure larrekirat joan ote epaiterat...

BERHOUE: Zuen larrekian baino gehiago irabaziko duzu gaur, gure elizan... Ixilkia salatzen dautzut, apezek deliberatu dugula zu izendatzea elizako ohorezko sakristau... Karia hortarat, zure bizi guzikotz, elizako moltsatik ukanen duzu pentsio-ne ttipi bat.

BETIRI: Dena ere on...

BERHOUE: Eta orai, behar dautzut bertze gauza bat ere erran. Apur baten buruan hunat etorriko zaizu herriko jaun auzapeza bere kontseiluko gizonekin...

BETIRI: (*Bortizkei*) Zer! Oxandabarat! Gure errientaren... ni saldu naue-naren anaia! Ez ahal da hura bederen agertuko! Ikusten badut, denen aintzinean botatzen diot goratik: «Orizul! Har-aitzu orai untzi sakratu hau hor dituzul».

BERHOUE: Xo, otoi, Betiri... Mintza gaiten emeki eta adimenduz. Orai artio, ez zuk eta ez guk, nehork ez dugu salatu horrekin gertatu zaiguna.

BETIRI: Ez nuke salatu nahi ere. Jainkoari hitzeman baitiot, ezkont arrats hartan, nehorri sekulan hortaz ez mintzatzea...

BERHOUE: Hitza hitz da, Betiri... Beraz ez dezakezu eskandalarik egin, gizon hori hemen ager baledi! Horren salatzea bailiteke.

BETIRI: Zer behar dut beraz?... Errespetuz eta irri gozoño batekin, ustel hori, agurtu?... Gainerat, nere etxean?

BERHOUE: Atzokoak ahantz-kitzu, Betiri. Goazen biharkoari... Behar da barkatu... Barkatzea errexago da barkamenduaren eskatzea baino!

BETIRI: Bai, bai... Bainan, bi gauza dira norbaiti barkatzea, barkamendu eske heldu zautzularik eta barkatzea, hobenik ez balu bezala, goratik mintzo zautzun mutur zurari.

BERHOUE: Nik galdatzen dautzudana da otoi ez dezazun eskandalarik egin...

BETIRI: Ez kexa, jaun bikarioa... Eskandalarik ez dut eginen, bainan ez dut nahi ni asto batentzat har nezaten.

ANA: Jaun auzapeza hemen da bere kontseiluko gizonekin.

BETIRI: Bon, komedia haste! Sar araz-zkitzu. (*Barnean dagozila Betiri, Berhouet eta Ana, sartzen da Oxandabarat bizpahiru kontseiluko gizonekin. Gainerakoak, ate sarreran ikus daitezke...*)



OXANDABARATZ: *(Betiriri)* Jar zaite, otoi, Betiri. *(Hau jartzen da. Orduan, auzapezak irakurtzen dio bere mintzaldia)* Betiri Iharour jauna, herriko auzapez bezala, nere kontseiluko gizonekin eta herri guzia dugula gurekin, heldu natzaizu gure zorionen emaiterat, zure ohoratzekeo apailatua izan den besta eder huntan. Onar-azu ere gu denen mileskerra: Herriko haur bati egin ohoreak, herri guzia baitu ohoratzen. Mendez-mende, merezi duzun bezala, euskaldunek aipatuko dute zure izena eta zure eginkizuna. Gaurkotz, herriko gizonen, zure fagoretan, hiru delibero hartu ditugu. Lehenik, gaurko elizkizunen ondotik, plazan egingen da besta bat eta, hor berean, herri guziari eskainiko zaio edatekoa urrik. Bigarrenekorik, zure bizi guzikotz izendatzen zaitugu, errient gure herriko eskolan, ezkila joile eta elizaren begiratzailer. Hirugarrenekorik, herriak, zure ohoretan, atera baitu medaila bat, oroitzapen hori, orai berean, nahi dautzut papoan ezarri. *(Betiri xutitzen da... Auzapezak, ohi den bezala, medaila papoan ezartzen dio... Esku zartak)*

BETIRI: *(Xutik)* Bihotz zolaraino hunkitua naiz herriak egiten dauzkidan fagore eta ohorez... Deneri milesker dautzuet. Jainko onak lagun nezala, berari eta herriari, beti leial egoiten! Egun hunek goxatzen ditu bertze ezin ahantzizko egun batzu. Ez dakit ean badakizuen torturatua izan nintzela, salakuntza baten ondotik. Beharbada, jaun auzapeza, zuk ere badakikezu nor izan zen salatzailea. Nere emazteak eta nik bada-kigu. Elgarri hitzemanu dugu haren izena sekulan nehoi ez salatzeke. Bertzalde, jakin dezala, bihotzaren erditik barkatzen diogula ukan duen ahulezia. Zu eta ni, jaun auzapeza, gaztetan adixkide minak ginen. Nork erran huntaratuko ginela? Nere aldetik, iduritzen zaut ez nuela holakorik merezi... Dena den, bizia hola da. Atzokoak ahantziz eta geroari behatuz, bihotzetik diot: Gora Jainkoa eta gora gure herria! *(Esku zartak)*

OXANDABARATZ: Apezak hor baitira heldu prosesioneko, bertzerik gabe, lekuak huts ditzagun. *(Jendea ateratzen ari dela)*

BETIRI: *(Bikarioari abapetik)* Zer diozu, jaun bikarioa, bota diodan benedizioneaz?

BERHOUE: Gutixko ur zela eta soberaxko binagre!

BETIRI: Behar ere.

ANA: *(Abapetik senarrari, bikarioak ere entzuten duela)* Errazu, Betiri, emazte batek, nahi luke baitezpada, orai berean, zurekin buruz buru mintzatu.

BETIRI: Orai?... Nun dut astia?

ANA: Berak dionaz, bi minutaz bakarrik eta nehor lekukorik gabe.

BETIRI: Nor da?

ANA: Kurkuil guardaren emaztea!

BETIRI: Zer!... Bere semea gillotinatzekeo baitute!

ANA: Bai, haren ama.

BETIRI: Zer nahi du?

ANA: Nik ez dakit.

BETIRI: Ez dut nik demendrenik horren ikusteko gutiziarik.

BERHOUE: *(Irriño batekin)* Alo, alo, ikus-azu emazte hori!... Sakrifizio bat, zure binagre hori olioztatzekeo!

BETIRI: Debruaren debrukeria!... Datorla beraz! Eta, berak hola nahi duenaz geroz, utz gaitzazue biak buruz-buru. *(Denak ateratzen dira... Ama sartzen da, arras asaldatua, nigarrez jana)*

AMA: *(Belauniko ematen da Betiriren aintzinean)* Jauna, ni naiz Kurkuil erraiten dioten guardaren emaztea. Ez gira euskaldunak. Gutu urte du Marseillatik hunat etorriak girela.

BETIRI: Eta gero zer?... Xuti zaite, emaztea! Ez naiz ni Jainkoa, zu hola nere aintzinean belaunikatzekeo.

AMA: Ez... Utz nezazu belauniko... Hola nahi dautzut barkamendu gal-datu nere semeak egin dituen gaxtakeria guzientzat!

BETIRI: Zer nahi duzu niganik?

AMA: Nahi nuke nere semea salba dezazun. Atzo jutatua izan da eta etzi lepoa moztekeo diote.

BETIRI: Badakizu zure semeak, ikaragarritzko gaxtakeriak egin dituela!

AMA: Ba badakit, ez naiz haren xuritzerat jina... Nere semea, gaztetan, apezgai izana da. Eginahalak egin izan ditut haren girixtinoki altxatzeko... Bainan gaurko errepublika aroak eta lagunek galdu dute.

BETIRI: Ez da errex bizirik uztea holako krimak egin dituen gizona!

AMA: Badakit hiltzea merezi duela. Bainan ni haren ama naiz... Zuk eta nik adoratzeko dugun Jesus beraren izenean, heldu naiz, zure laguntzaren eske.

BETIRI: Zer egin dezaket nik?

AMA: Pentsatu dut beharbada, zure bestakari, nere semearen grazia gal-datzen ahal zinukela. Zu zira nere azken esperantza.



BETIRI: (*Apur bat ixilik*) Bon... Hitzemaiten dautzut ahal dudana eginen dudala zure semea salbatzeko. Bainan, kontura zaite, nere ahalak arras ttipiak direla...

AMA: Entseatzea dautzut bakarrik galdatzen. Otoi, zure amaz, oroitzuz, urrikal zaite nitaz...

BETIRI: Bon, erran bezala, eginahalak eginen ditut.

AMA: Milesker. Jainkoak lagunduko ahal gaitu. Otoitz eginen dut zuretzat!
(*Ateratzzen da*)

BETIRI: (*Apur bat dago, burua pausatua besoaren gainean, murrnaren kontra. Nigarrrak xukatzen ditu, suspirekin diolarik*) Hau gurutzea!...

BERHOUE: (*Agertuz*) Bon, Betiri... Hemen denak prest gira... Zuk har gurutzea... Beste puska horiek pasatzen ditut beretterre-ri... Zure inguruan emanen dira, prosesionen denboran.

KANTARIAK: (*Jada kanpotik entzuten da kantua*)

Oi gurutzea, (*bis*)

Gurutze saindu maitea!

Bertzorduz hemen etsai gaxtoa

Zutaz izan zen eroa

Zure indarra da jainkozkoa

Deusek ezin hautsizkoa.

(*Kantu horiek ematen direla, Betiri ateratzzen da bere gurutzarekin, jaun bikarioa eta bere emaztea dituela aintzinean. Oibala jansten da emeki*)

OIHALA